

Osasuna garapenerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan

2022KO TXOSTENA

E u s k a d i


medicusmundi



“Osasuna Garapenerako Lankidetzan eta Ekintza Humanitarioan” Txostena medicusmundiren eta Munduko Medikuek elkartearen arteko ekimen bateratu bat da, eta 2002tik osasunaren eta ekintza humanitarioaren arloan nazioarte eta estatu mailan nahiz era deszentralizatuan Garapenari ematen zaion laguntza ofizialaren analisi kritiko bat eskaintzen du.

Horrez gain, osasunari modu globalagoan eragiten dioten eta nazioarteko agenda aldiro zedarritzen duten politika, faktore eta egoera garrantzitsuenak ere biltzen ditu, munduko herrialde edo eskualde jakin batzuetan osasunak bizi duen errealitatearen analisi xehatuagoarekin batera.

Informazio guztia CooperaSalud online tresnan dago eskuragarri:

<http://www.cooperasalud.org/>

1. Espainiako lankidetzaren deszentralizazioa

Espainiako lankidetzaren deszentralizazioak elementu bakan eta bereizlea osatzen du, onerako, nonbait, inguruko herrialdeetan gauzatzen den lankidetzaren aldean, eta balorazio ona du nazioarte mailan. Autonomia erkidegoek (AAEE) eta tokiko erakundeek (TTEE) egiten duten lankidetzaren biltzen du. Lankidetzaren deszentralizazioak hazkunde ikusgarria bizi izan zuen 15 urtetan (1994tik 2008ra bitartean), batik bat 2005etik aurrera. Hurrengo sei urteetan, 2009tik 2014ra bitartean, aldiz, atzeraldia izan zuen eta 1998ko mailaren azpitik jartzera heldu zen. 2015etik 2019ra berriz,

sendotu egin zen lankidetzaren deszentralizatuaren goranzko joera, eta urtero 25 milioi euro baino gehiagoko igoera izan zuen. 2020an, COVID-19aren pandemiak nabarmen eragin zion joera horri, eta erakunde batzuk eutsi eta, are, igo egin bazituzten ere garapenerako laguntza ofizialerako (GLO) bere partidak, beste askok jaitsi egin zituzten. Halatan, lankidetzaren deszentralizatu globalak 7,2 milioi euro jaitsi zen. 2021ean, ordea, lankidetzak gora egin zuen berriz ere, 26,5 milioi euro gehiago izan ziren, eta 340,4 milioi eurora heldu zen guztira. 2010etik ez

1. GRAFIKOA. Lankidetzaren deszentralizatuaren bilakaera




ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN (GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKEN ZUZENDARITZA NAGUSIA) ETA NLEI (NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO ESTATU IDAZKARITZA) ERAKUNDEEK ARGITARATUTAKO DATUETAN OINARRITUTA


Euskadiren osasun lankidetzaren zifratuak 2021



GLO OSASUNA EUSKADI



TOKIA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEAN



EUSKADIN NORK JARTZEN DU GEHIEN LANKIDETZAN OSASUNERAKO?




EUSKADIKO OSASUNeko LANKIDETZAREN BANAKETA

EREMU GEOGRAFIKOA SEKTOREA



SEKTOREA



zen halako zifrarik lortzen. Berri oso ona da lankidetzaren deszentralizatua joera positibora itzuli izana, nahiz eta oraindik urrun egon 2008-2009ko zifretatik.

Txosten honek Euskadiko lankidetzaren errealitatea aztertzen du lankidetzaren kalitatea hobetzeko asmoz, batik bat, osasunari eta ekintza humanitarioari (EH) dagokionez. Aldi berean, lankidetzaren horrek ekitate eza murrizteko betetzen duen eginkizuna nabarmentzen du.

Dokumentu honetako eta medicumundik eta Munduko Medikuek egindako "Osasuna Garapenerako Lankidetzaren eta Ekintza Humanitarioaren" txosteneko datuen analisia Garapenerako Laguntzarako Batzordeak (GLB) eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak erabilitako irizpidean oinarritzen da. Hau da, Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) fluxuak aztertzen ditugu kuxako kontabilitate-irizpidearekin -jarritako funtsak- bat etorrita, sortzapen-irizpidearen ordez -konprometitutako funtsak-, zeina idatziz adierazitako, funtsekin lagundutako eta emaileak bere gain hartutako betebeharrak irrimo baten bidezko konpromisoan gauzatzen den. Jarritako laguntzaren irizpideari esker, urtero jakin dezakegu emaile batek benetan egin dituen ekarpenak, eta emaile horrek dituen baliabideekiko eta beste emaile batzuekiko egiten duen ahalegina neur daiteke, urte anitzeko konpromisoen kontabilizaziotik erator daitezkeen nahasketak saihestuz. Oro har, txosten hauetan aurkeztzen diren datuak, besterik adierazi ezean, aipatu Ministerioaren Garapen Iraunkorrek Politiken Zuzendaritza Nagusiak (GIPZN) bere Info@OD tresnaren bidez bildutakoak dira, eta datu horiek autonomia erkidegoek bere emandakoetan oinarritzen dira, horien alderaketa egite aldera. Hala ere, Info@OD plataforman bildutako datuek ez dute beti leialtasunez jasotzen AAEEK edo UPEFek (Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa) benetan jarritako zenbatekoa, jarraian ikusiko dugunez. Horixe gertatzen da kasu honetan ere.

DATUEN ANALISIRAKO OHARRA

2021. urtean, urte pandemikoan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) GIPZN erakundeari egindako ekarpenean, oso kopuru baxuak esleitu ziren osasunera, 913.125 euro besterik ez, 53 milioi euro ingurura heltzen zen aurrekontu global baten barruan.

Zifra horiek, ordea, ez dute kontuan hartzen GLEAk bere lehentasun estrategikoekin koherentzian esleitzen dituela CRS kodeak, genero-ekitatea nabarmentzen delarik bertan. Hala, zenbait ekimen -batik bat, sexu eta ugalketa eskubideei lotutakoak- emakumeen ahaldunderako/giza eskubideen ekimenez hartzen dira, ez osasun alorrekoak. Beraz, ekimen horiei ez zaie esleitzen osasuneko CRS koderik, gobernu eta gizarte zibilari lotutako kode bat baizik (adibidez, 15150, 15160, 15170 edo 15180). Horrenbestez, osasun alorreko ekimenez hartzen direnei sexu eta ugalketa eskubideekin lotutakoak gehitzen bazaizkie, 785.548 eurotan gehituko litzateke guztira, eta Eusko Jaurlaritzak osasunera bideratutako funtsen zenbatekoa kasik 1,7 milioi euro izango litzateke, 2021eko GLO guztiaren %3,2, alegia. Euskadirako txosten zehatz honen analisirako erreferentzia gisa hartuko dira osasunerako GLEAk emandako datuak, baina erakundearen arteko hausnarketa baten beharra ere badago bertan, behar bezala ikusarazi dadin Eusko Jaurlaritzak osasun-lankidetzaren egiten duen ahalegina. GIPZNren datuak, izan ere, nazioarteko erakundeekin partekatzen dira eta espainiar estatuko instituzio ezberdinek lankidetzari eskaintzen dioten ahalegina alderatzeko aukera ematen du.

Azkenik, aipatu beharra dago 15,5 milioi euro, hots, Espainiako toki erakundeek jarritako funts guztien %22, UPEFek eskaintzen duen "100.000 biztanle baino gutxiagoko TTEren GLO proiektuen zifra agregatua" izeneko atal batean sartuta dagoela, eta horrek eragotzi egin du erakunde horiek lankidetzaren egiten duten azterketa xehatuagoa.

2. Euskadiren Garapenerako Laguntza Ofiziala

2021ean Euskadiko erakunde publikoek, osorik hartuta, 72,5 milioi euro baino gehiago zuzendu zituzten Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO), 1. taulan ikus dezakegunez. Erakunde horien artean, Eusko Jaurlaritzak izan zen lankidetzarako diru gehien jarri zuena, 53 milioi euro inguru-rekin, guztiaren %73a. Egitez, Eusko Jaurlaritzak %12,2 igo zuen bere GLOa 2020ko urtearen aldean, 5,3 milioi gehiago. Tokiko erakundeek, bere aldetik, 19,5 milioi zuzendu zituzten lankidetzara, guztiaren %27a. Xalotzekoa da euskal erakundeek kopuru garrantzitsuak zuzendu izatea GLOra, eta espero dugu igoera hori denboran etengabe irautea.

Osasun alorreko lankidetzari dagokionez, 2021ari buruzko analisiak erakusten du erakundeek 3 milioi euro besterik ez zituztela zuzendu horra. Kopuru txikia, inondik ere, GLO guztia-rekin alderatuz gero, aurreko urteko kopuruak bikoiztuagatik ere. Igoera hori, batik bat, GLEAK osasun-lankidetzarako jarritako hazkunderari lotuta dago, milioi euro bat baino gehiagoan handitu baitu 2020an egindako ekarpena. Nolanahi ere, kontuan izan behar da hazkunde hori askoz apalagoa izango litzatekeela GIPZNren zifrak erabiltzen badira, 300.000 euro eskas. Tokiko erakundeek dagokionez, osasunerako euren lankidetzak ere nabarmen gora egin du 2020ren aldean, zehazki %25, eta 1,3 milioi eurora iritsi da.

Osasunak GLO osoan duen garrantzia aztertzen badugu, Eusko Jaurlaritzak eta tokiko

erakundeek %3,2 eta %6,7 zuzentzen dute, hurrenez hurren, osasun-lankidetzara bere guztizko GLOtik. Portzentaje oso baxuak dira sektoreak duen garrantzia kontuan hartuz, eta ez dira GLB emaile guztien batez bestekora ere iristen, %17,54 izan baitzen 2021ean, ezta espainiar lankidetzaren %16,8ra edo erkidegoko lankidetzaren osoaren %11,4ra ere. Osasun-lankidetzak duen pisu txikia azken urteotan errepikatzen den kontua da, eta agerian uzten du euskal erakundeek beste erakunde batzuk osasunera zuzentzen duten portzentajera arrimatzeko egin behar duten ahalegina. Osasunak funtsezko sektorea izan behar du nazioarteko lankidetzan, COVID-19aren pandemiak urte hauetan erakutsi izan digun moduan.

Finantzatutako ekintzen kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 357 ekintza zenbatu zituen 2021ean, baina horietatik soilik 12, guztiaren %3,3 alegia, dira osasunekoak. Tokiko erakundeek, bere aldetik, 530 ekintza burutu zituzten, horietatik 57 izanik osasunekoak, %10,7. Eusko Jaurlaritzak finantzatutako osasun proiektuen batez besteko kostua 141.556 euro da, eta tokiko erakundeena, berriz, 22.906 euro.

2021ean autonomia erkidego bakoitzak GLOra bideratutako zifren alderaketa eginez gero, Eusko Jaurlaritzak agertzen da 17 autonomia erkidegoen buruan, pasa den urtean bezala. Egitez, Eusko Jaurlaritzak lehen postuetan agertzen da GLOra zuzentzen den ekarpenari dagokionez autonomia erkidegoz erkidegoko analisiari heldu

1. TAULA. Euskal lankidetzak 2021ean egindako ekarpenari buruzko datu orokorrak

	GLO/osasuneko ekintza kopurua	GLO kopurua	osasuneko kopurua	osasu-naren %
AAEE	357/12	52.997.561	1.698.674*	3,21
TTEE	530/57	19.518.923	1.305.667	6,69
GLO, GUZTIRA	887/63	72.516.484	3.004.341	4,14

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ETA NLEI ERAKUNDEEK ARGITARATUTAKO DATUETAN OINARRITUTA
*ZIFRA HORI GLEAK EMANA DA

2. TAULA. AAEEren GLOa eta osasuneko GLOa

AAEE	2021eko GLOa	2021eko osasun GLOa	osasuneko GLOren %
Andaluzia	30.260.440	3.921.751	12,96
Aragoi	6.038.023	670.009	11,10
Asturias	4.727.749	691.617	14,63
Balearrak	6.428.807	1.017.211	15,82
Kanariak	2.688.727	768.511	28,58
Kantabria	2.593.217	446.117	17,20
Katalunia	48.040.651	4.895.905	10,19
Gaztela-Mantxa	3.199.661	827.943	25,88
Gaztela eta Leon	5.037.110	181.589	3,61
Valentziako Erkidegoa	46.929.238	7.073.253	15,07
Extremadura	11.606.945	1.114.407	9,60
Galizia	8.079.526	1.374.816	17,02
Errioxa	2.973.838	462.449	15,55
Madril	4.685.194	490.733	10,47
Murtzia	431.144	30.000	6,96
Nafarroa	13.620.562	3.694.796	27,13
Euskadi (GLEA)	52.997.561	1.698.674	3,21
Euskadi (GIPZN)	52.997.561	913.125	1,72
GUZTIRA	250.338.391	28.574.231	11,41

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO DATUETAN OINARRITUTA

zitzaionetik, eta erakusten du interesa jartzen duela lankidetzaren sektorean.

Analisi hori osasunera zuzendutakora zedarritzen bada, aurten bereizi beharra dago analisi horretan GLEAK osasun lankidetzara zuzendu dituen kopuruak barne hartzen ditugun edo analisi hori GIPZNe eskainitako zifrekin bakarrik egiten den. Lehen kasuan, osasunera zuzentzen diren zifrek bosgarren postuan jartzen dute Eusko Jaurlaritzak osasunera bideratutako guztizkoa kontuan, baina zortzigarren postura jaisten da GIPZNren zifrak erabiltzen badira. Osasunera bideratzen den ahaleginaz denaz bezainbatean, eta sektore horretara zuzentzen den GLO portzentajea neurtuz, azpimarratzekoa da batean zein bestean Eusko Jaurlaritzak azken tokian dagoela autonomia erkidego guztien artean, %11,4ko batez bestekotik oso urrun. Horrek, esan bezala, gogoeta eragin behar lioke Eusko Jaurlaritzari haren lankidetzan osasunak bete behar duen rolari buruz.

Osasunaren sektorean jartzen den interes urria agerikoa da Euskadik erkidego mailako osasun lankidetzan duen garrantzia alderatzen badugu. Zifra absolutuetan, Eusko Jaurlaritzak

osasunera bideratutako 1,7 milioi euroak erkidegoetako gobernu guztiek osasunean egindako gastuaren %5,9 dira. Bitartean, bere GLO orokorra autonomia erkidego guztien GLOren guztizkoaren %21 baino gehiago da, osasun-lankidetzan baino 3,5 bider gehiago.

Hala ere, zifra absolutuek ez dute osorik islatzen erakundeek lankidetzan jartzen duten interesa, hainbat faktoreen mende dagoelako, besteak beste, autonomia erkidego bakoitzaren neurriaren arabera. Hori dela eta, autonomia erkidegoek lankidetzan egiten duten benetako ahalegina neurtzeko beste modu batzuk sartu ditugu, biztanleko GLO gastua kalkulatu. Halaber, autonomia erkidego bakoitzaren aurrekontutik lankidetzara zenbat diru zuzentzen den ere kalkulatu da. 2021ean, Eusko Jaurlaritzak 23,94 euro zuzendu zituen GLOra biztanleko, autonomia erkidegoen batez besteko 5,3 euroren ia halako bost, alegia. Zifra horrek lehen postuan jartzen du 17 erkidegoen artean, eta Nafarroa bakarrik hurbiltzen zaio, biztanleko 20,59 euro-rekin. GLOko gastua bere aurrekontu orokorraren arabera aztertzen bada, Euskadi erkidego guztien

3. TAULA. Erkidegoen aurrekontuaren GLO portzentajea eta AAEEk 2021ean GLOan biztanleko egindako gastua

AAEE	2021eko GLOa (jarrita)	AAEEn aurrekontua	GLOren %	Biztanleria (2021)	GLOa biztanleko
Andaluzia	30.260.440	40.188.042.635	0,075	8.472.407	3,57
Aragoi	6.038.023	7.454.031.859	0,081	1.326.261	4,55
Asturias	4.727.749	5.237.551.819	0,090	1.011.792	4,67
Balearrak	6.428.807	5.881.551.715	0,109	1.173.008	5,48
Kanariak	2.688.727	9.531.472.032	0,028	2.172.944	1,24
Kantabria	2.593.217	3.078.036.808	0,084	584.507	4,44
Gaztela eta Leon	5.037.110	12.291.444.522	0,041	2.383.139	2,11
Gaztela-Mantxa	3.199.661	12.051.090.090	0,027	2.049.562	1,56
Katalunia	48.040.651	42.322.990.970	0,114	7.763.362	6,19
Valentziako Erkidegoa	46.929.238	26.138.651.984	0,180	5.058.138	9,28
Extremadura	11.606.945	6.423.894.820	0,181	1.059.501	10,96
Galizia	8.079.526	13.396.505.623	0,060	2.695.645	3,00
Errioxa	2.973.838	1.891.434.677	0,157	319.796	9,30
Madril	4.685.194	25.231.240.972	0,019	6.751.251	0,69
Murtzia	431.144	6.753.606.724	0,006	1.518.486	0,28
Nafarroa	13.620.562	4.870.520.378	0,280	661.537	20,59
Euskadi	52.997.561	12.522.062.107	0,423	2.213.993	23,94
GUZTIRA	250.338.391	235.264.129.737	0,106	47.215.329	5,30


ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK EINEK ARGITARATUTAKO DATUETAN OINARRITUTA

buruan da hor ere, aurrekontuaren %0,423 bideratzen duelarik GLOra. Portzentaje hori autonomia erkidegoen batez bestekoen eta Espainiaren batez bestekoaren oso gainetik dago,

baina oraindik urrun erakunde publiko guztiek hartutako %0,7ko konpromisotik.

Euskal lankidetzaren denbora aldetik aztertzen bada, ez du izan beste autonomia erkidego

2. GRAFIKOA. GLO orokorraren eta osasuneko GLOren bilakaera, Eusko Jaurlaritzak




ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ETA GLEA ERAKUNDEEK GLOTIK ITZULITAKO DATUETAN OINARRITUTA

batzuk izan dituzten bezainbesteko gorabeherarik. Hala ere, 2. grafikoan ikusten da alde oso esanguratsuak egon izan direla GLOra zuzendutako gehieneko zifraren, hots, 2012ko 54,4 milioi euroren, eta 2013an jazo zen jaitsiera izugarriaren artean, 31,3 milioira ere iritsi ez zenean, %42,5eko GLO gutxiago urte batean. Ordudanik, euskal GLOak goranzko joera iraunkorri eutsi izan dio, 2021ean 52,9 milioi eurora heltzeraino, 2012an zuzendu zen zifratik oso hurbil. Dena dela, bai 2022ko aurrekontuak zein 2023koek eten egin dute GLOren proiektzio positibo hori. Izan ere, 2021ean baino 2,5 milioi gutxiago zuzentzea aurreikusita dago. Zifra positibo horiek gorabehera, gogoratu beharra dago oraindik bide luzea geratzen dela %0,7 horretara heltzeko, eta beraz, espero dugu Eusko Jaurlaritzak lehenbailehen heldu ahalko diola GLOren hazkunde positiboranzko bideari.

Osasunera zuzendutako gastuak gorabehera handiagoak bizi izan ditu urteetan zehar, 2. grafikoan ikus daitekeenez. Eusko Jaurlaritzak 2012an zuzendu zuen zenbateko handiena osasuneko GLOra, 3,4 milioi euro, 2021ean bideratu izan duenaren halako bi. Edonola ere, autonomia erkidegoen arabera GLO analisi hau egiten denetik, osasuna ez du ematen sektore garrantzitsua denik euskal lankidetzaren barruan. Izan ere, 2012an %6,4 zuzendu bazen ere osasuneko GLOra, 2021ean zuzendutakoaren bikoitza, oso portzentaje eskasa jarraitzen zuen izaten. Euskal lankidetzak gogoeta egin beharra du osasuna bere GLOn betetzen ari den eginkizunaz, kontuan hartuz sektore horrek herrien eta pertsonen (batik bat, kalteberenen) garapenean funtsezko elementu gisa duen garrantzia.

Eusko Jaurlaritzaren osasuneko GLOak –osasun GLBren lau CRS sektoreak oinarritat hartuta: oinarritzko osasuna, osasun orokorra, sexu eta ugalketa osasuna, eta gaixotasun ez-kutsakorrek (GEK)– hartu duen norabidea aztertzen jarrita, ikusten dugu horietako bik bakarrik, oinarritzko osasunak %54rekin eta sexu eta ugalketa osasunak %46rekin, jasotzen dituztela funtsak euskal lankidetzatik. Nabarmentzekoa da 2021ean COVID-19aren kontrolak –urte hauetako koiunturazko kontua– 575.000

3. GRAFIKOA. CRD sektoreak osasunera




ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

euro jaso zituela, osasunera zuzendutako funts guztien %33,8, hain zuzen. Pandemiak nazioartean garrantzia izateari uzten dionean, espero dugu osasun lankidetzako zifra horiek ez al direla urrituko, lehenik ere nahiko urriak baitira. Osasuna bezalako sektore batean euskal lankidetzaren aldetik askoz finantzazio handiagoaren premian denean, beste behar batzuk estaltzera zuzenduko ahal dela espero dugu. Osasuneko lankidetzaren hazkundeak oreka handiago bilatu behar luke sektoreen artean. Izan ere, oinarritzko osasunera eta sexu eta ugalketa osasunera lerratutako joera sektorial hori negatiboa ez den arren, osasun-sistema publikoak indartzeko eta kalteberenen osasun premiak estaltzeko –horiek dira osasun lankidetzaren oro gidatu behar luketen bi elementu nagusiak– beharrezkoak diren osagai batzuk dituzte osasun orokorrak zein GEK-k.

Orientazio geografikoari dagokionez, banatu samarturik dago. Azpimarratzekoa da finantzazioaren %36 ezin izan dela zehaztu geografikoki. Zehaztu gabeko laguntza horren zati handi bat COVAX ekimenerako txertoak erostera zuzendu da, behar-beharrezko kontua baitzen, ikusita COVID-19aren txertoak mundu osoan zabaltzeko zuten berebiziko premia. Eskualdekako banaketari dagokionez, amerikar kontinenteak jasotzen du euskal osasun GLOren zatirik handiena, zehazki %42,3. Kopuru horretatik, %32,7 Ipar eta Erdialdeko Amerikarako da, eta gainerako %9,5a Hego

4. GRAFIKOA. Osasun GLOren banaketa geografikoa



ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Amerikarako. Saharaz hegoaldeko Afrika nahiko urrun geratzen da, %8,66rekin. Asia Hegoaldeak jarraitzen dio %8,4rekin eta Ekialde Hurbilak gero, %4,4rekin. Euskal osasun lankidetzaren hazkunde potentziala, nagusiki, Saharaz hegoaldeko Afrikara zuzendu behar litzateke, eskualde horretan daudelako osasun arazo handienak.

4. TAULA. Osasun GLOa euskal tokiko erakundeetan

TTEE	GLOa	Osasun GLOa	Osasuna %
Bilboko Udala	3.058.141	13.118	0,43
Donostiako Udala	1.763.065	229.955	13,04
Errenteriako Udala	114.304	8.000	7,00
Irungo Udala	492.958	105.094	21,32
Portugaleteko Udala	80.000	33.726	42,16
Urnietako Udala	18.099	5.471	30,23
Zarauzko Udala	259.652	64.281	24,76
Arabako Foru Aldundia	1.233.173	39.900	3,24
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.638.048	321.301	6,93
Bizkaiko Foru Aldundia	7.833.984	484.820	6,19

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Horrekin batera, amerikar eskualdean egiten den lana pobrezia-politsetara zuzentzen dela ziurartatu behar da, inguru hori izaki ekitate gabeziarik handieneko eskualdea.

EUSKAL TOKIKO ERAKUNDEAK ETA OSASUNA

2021ean, hamar euskal tokiko erakundek zuzendu izan dituzte funtsak osasun GLOra. Bizkaiko eta Gipuzkoa foru aldundiak eta Donostiako Udala nabarmentzen dira guztien gainetik, 200.000 euro baino gehiago zuzendu dituzte osasunera, eta osasunera diru gehien zuzentzen duten Espainia osoko toki erakundeen artean daude. Hiru euskal toki erakunde horiek eratzen dute euskal tokiko osasun GLO guztiaren %79a.

Osasunak GLO osoan duen garrantzia aztertuz gero, Portugalete, Urnietako, Zarautz, Irun eta Donostiako udalek %13tik gorako ekarpena egin zuten –lehen laurek, %20–, eta toki erakunde horiek osasun lankidetzaren gainean azaltzen duten interesaren erakusgarri da. Aurrerantz ere horri eutsiko diotela espero dugu.

3. Ekintza Humanitaria Euskadin

Garapenaren Lankidetzarako Euskal Agentziaren Ekintza Humanitariarako Estrategia 2018-2023 (EHE) da erreferentziazko dokumentua Eusko Jaurlaritzaren politika humanitarioaren plangintza eta kudeaketarako. Laguntza humanitariarako proiektu guztiak gidatzeko helburua du, fokua eremu horren berezko espezifikotasunean eta gaitasunetan jarrita. Estrategiak jasotzen duen moduan: “EHEk ekintza zehatz sorta bat planteatzen du, lau ardatzetan egituratuta: krisiak eragindako biztanleriak babestea; antolakundeak indartzea lana eraginkorrago egin dezaten; herritarrei informazioa eta sentsibilizazioa ematea ekintza humanitarioan engaiatu daitezten; eta, GLEAren egitekoa eta beste eragile batzuekin burutu beharreko koordinazioa indartzea haren politikaren kalitatea hobetzeari begira”.

Hona hemen haren apustu estrategiko garrantzitsuenak: gatazka dagoen lekuetan esku-hartze handiagoa sustatzea; antolakundeak tokian bertan indartzea; GLEA eremu huma-

nitarioan egiten duen lana sendotzea Ekintza Humanitarioko Unitatea (EHU) sortuta, Ekintza Humanitarioaren politikaren ziklo programatikoko oso arduratuko dena. 2021etik ikasketako proiektu pilotua gailentzen da: “Ekintza humanitarioaren xede diren biztanleriaren parte-hartzea baloratzeko eta sustatzeko eta horiei kontuak emateko tresna”, EH arloan prestakuntzarako eta esperientziak trukatzeko espazio bat, arlo horietako ezagutzak ariketa praktikoen bidez inplementatzeko helburuarekin.

Aurrekontuaren ikuspegitik, EHEk ezartzen du banatu daitezkeen funtsen %10, gutxienez, EHra zuzendu beharko dela urtero. Bestetik, krisi humanitarioei erantzuna emateak eratzen du lau arlo estrategikoetako bat Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.

GIPZNren datuen arabera, 2021ean Euskadik 10.181.851 euro zuzendu zituen guztira EHra, autonomia erkidegoak (8.820.000 euro) eta

5. TAULA. AAEEk EHra zuzendutako GLOa, 2019-2021

AAEE	2019	2020	2021
Andaluzia	5.885.286	2.991.339	0
Aragoi	117.891	5.242	336.553
Asturias		205.000	50.000
Balearrak	440.000	613.000	531.444
Kanariak			0
Kantabria	50.000	200.000	331.825
Gaztela eta Leon	81.000	200.000	592.922
Gaztela-Mantxa	60.000	124.000	255.400
Katalunia	726.330	1.190.000	2.810.000
Valentziako Erkidegoa	2.581.650	2.770.951	2.812.862
Extremadura	913.300	726.180	1.089.600
Galizia	110.108	247.398	659.987
Errioxa	90.076	50.000	50.000
Madril	624.229	689.906	1.064.979
Murtzia		120.000	105.000
Nafarroa	240.000	298.000	308.000
Euskadi	2.878.777	7.332.186	8.820.000
GUZTIRA	14.798.647	17.763.602	19.818.571

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

6. TAULA. Autonomia erkidegoen EH gastua biztanleko 2021ean (eurotan)

AAEE	EH	Biztanleak	EH biztanleko
Andaluzia	0	8.472.407	0,00
Aragoi	336.553	1.326.261	0,25
Asturias	50.000	1.011.792	0,05
Balearrak	531.444	1.173.008	0,45
Kanariak	0	2.172.944	0,00
Kantabria	331.825	584.507	0,57
Gaztela eta Leon	592.922	2.383.139	0,25
Gaztela-Mantxa	255.400	2.049.562	0,12
Katalunia	2.810.000	7.763.362	0,36
Valentziako Erkidegoa	2.812.862	5.058.138	0,56
Extremadura	1.089.600	1.059.501	1,03
Galizia	659.987	2.695.645	0,24
Errioxa	50.000	319.796	0,16
Madril	1.064.979	6.751.251	0,16
Murtzia	105.000	1.518.486	0,07
Nafarroa	308.000	661.537	0,47
Euskadi	8.820.000	2.213.993	3,98
GUZTIRA/BATEZ BESTE	19.818.572	47.215.329	0,42

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

tokiko erakundeek (1.361.851) zuzendutako funtsen ondorioz. Era horretan, Euskadik jarraitzen du izaten lehen emalea, 2020an bezala. EHra zuzentzen duen kopuruari dagokionez, Euskadik egiten duen ekarpena autonomia erkidego guztiek EHra zuzentzen dituzten funts guztien %44,50 da. Hala ere, euskal lankidetzaren datuek erakusten dute autonomia erkidegoan 11.535.955,39 euroko balioko diru-laguntzak onartu izan zirela (hau da, GIPZNe eskainitako datuek baino 2.715.955,39 euro gehiago). Aurrerago azaltzen den moduan, datu horiek GIPZNeekin erkatzen direnean, errorea antzematen da proiektuen kodifikazioan.

Ekintza humanitarioak osatzen du Euskadiko gobernuaren GLOren %16,64, hazkunde txiki bat dakarrelarik 2020koaren aldean, %16 esleitu baitzuen orduan, autonomia erkidegoen %7,26ko batez bestekoaren eta ekintza humanitariora GLOren %10 zuzentzeko nazioarteko konpromisoaren oso ginetik.


Erkidego mailan, arestian esan bezala, Euskadi lehen postuan egongo litzateke, autonomia erkidego guztiek zuzendu izan duten zenbatekoaren

%44,50ekin. Valentziako Erkidegoak jarraituko lioke gero, 2.812.862 euroekin (%14,19), eta ondoren Kataluniak 2.810.000 euroekin (%14,18).

5. taularen arabera, ikusten da autonomia erkidegoek igoera garbia izan dutela finantzazioan 2020ren aldean (%26,46). Ia autonomia erkidego guztiek igo zuten EHrako euren ekarpena, esanguratsuak izanik Kataluniaren (1.620.000 euro) eta Euskadiren (1.487.814 euro) igoerak. Murtziako eta Balearretako erkidegoak dira EHrako finantzazioaren igoera horretako salbuespenak, apur bat jaitsi egin baitzuten. Bestetik, GIPZNe Andaluziari ez bazion ere finantzaziorik aitortzen EHn, 2021ean handitu egin du bere finantzazioa haren datuen arabera, eta 3,8 milioiraino heldu da.

Biztanleko EH gastua aztertzen badugu, autonomia erkidego bakoitzak benetan egiten duen ahalegina neurtzen duena, Euskadi lehen posizioan dago 2020an bezala, eta 3,98 euro zuzentzen ditu EHra biztanleko. Extremadurak (1,03 euroekin) eta Kantabriak (0,57 euro) jarraitzen diote gero urrutitik, eta autonomia erkidego guztien batez bestekoaren (0,42 euro) halako hamar da ia.

5. GRAFIKOA. EHren bilakaera, Eusko Jaurlaritza (eurotan)



ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ETA GLEA ERAKUNDEEK GLOTIK ITZULITAKO DATUETAN OINARRITUTA

DATUEI BURUZKO OHARRA

Emandako datuez gain, kontuan izan behar da GIPZNe emandako datuak aztertzean akatsak hauteman izan direla EHren proiektuei GLBren CRS kodeak esleitzean, beste autonomia erkidego batzuekin gertatu bezala.

Aurrekoa kontuan, eta GLEaren ekintza humanitariorako proiektuetarako 2021eko jarduerako memoriaren datuak eskuan, Eusko Jaurlaritzak ekintza humanitariora guztira esleitutako zenbatekoa 11.535.955 euro da. Zenbateko hori aintzat hartuz, EHra zuzendutako GLOren portzenta-jea %21,77raino heldu da, GIPZNe eskainitako datuen arabera lehendik ere lortzen zen %16,24 bikainaren aldean.

7. taulak erakusten duenez, proiektu batzuei EHren 700 CRS kodearen bestelako bat esleitu izan zaie. Hori da, besteak beste, "Gizarte Azpie-

giturak eta Zerbitzuak" atalari dagokion 100 kodeari lotutako proiektu batzuen kasua. Era berean, GLEaren 2021eko jardura memorian badira proiektu batzuk GIPZNe eskainitako itzulketan argi eta garbi identifikatu ezin direnak.

GIPZNe ematen dituen datuak autonomia erkidegoek bere eskainitakoak direnez, sistemaren ahulezia bat da, eta komeni litzateke hori zuzentzea erkidegoko lankidetzaren guztiak espainiar lankidetzaren behar bezala zenbaturik agertzen direla ziurtatzeko.

Erkidegoetako laguntzaren banaketa geografikoari dagokionez, GIPZNe identifikatutako 8.820.000 euroak 6. grafikoaren arabera geratuko lirateke banatuta.


Aurrekoaren arabera, hauek lirateke eskualde jasotzaile nagusiak: Saharaz hegoaldeko Afrika (2.899.729 euro) eta Ekialde Hurbila (2.909.863 euro), %33 osatzen dute bien artean, gero Afrika

7. TAULA. Eusko Jaurlaritzak 2021ean esleitutako EHren adibideak

Herrialdea	Emandako zenbatekoa	Info@OD/DGPOLDES plataforman esleitutako CRS kodea
Benin, Burkina Faso, Senegal	135.800	Identifikatzeke
Burundi, Kongoko E.D., Ruanda, Uganda	180.000	100 - Gizarte Azpiegiturak eta Zerbitzuak
Kuba	140.000	Identifikatzeke
El Salvador, Costa Rica	150.000	100 - Gizarte Azpiegiturak eta Zerbitzuak
Guatemala	100.000	100 - Gizarte Azpiegiturak eta Zerbitzuak
Guatemala	105.000	Identifikatzeke
Malawi	180.000	100 - Gizarte Azpiegiturak eta Zerbitzuak
Mauritania	147.159	100 - Gizarte Azpiegiturak eta Zerbitzuak
Senegal	140.000	400 - Sektore askotarikoa
Siria	200.000	Identifikatzeke
Sudan	105.000	100 - Gizarte Azpiegiturak eta Zerbitzuak

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ETA GLEA ERAKUNDEEK GLOTIK ITZULITAKO DATUETAN OINARRITUTA

6. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzak 2021ean herrialde eta lurraldeen arabera esleitutako EHren banaketa



Iparraldea (1.091.482 euro), Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibea (968.925 euro), eta, urrunago, Hego Amerika (400.000 euro), Asia Ekialdea (200.000 euro) eta Europa (150.000 euro).

EHren banaketa laguntza humanitarioaren premia handieneko bi eskualdeetara zuzentzen da, gehien bat. Dena dela, ondo egongo litzateke Eusko Jaurlaritzaren EHko edozein igoera Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratzea, eskualde horrek duelako urtetatik krisi humanitario kopuru handiena.

Tokiko erakunde multzoa aztertuz, berriz, nahiz eta EHra zuzendutako finantzazioa, oro har, nabarmen igo den 2020koaren aldean 5,8 milioi euroekin, 2019an lortu zen bolumena berreskuratuz horrela, hazkunde hori ez da modu berdinean banatzen, eta handienak Aragoi, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Balearrak, Katalunia, Murtzia eta Euskadiko (bikoiztu egin du) toki erakundeetan izan dira. Aldiz, Andaluziako, Asturiasko, Gaztela eta Leongo, Valentziako Erkidegoko eta Madrileko toki erakundeek murriztu egin dute.

Tokiko erakundeek EHrako autonomia erki-degoaren arabera egindako ekarpena alderatuz aztertzen bada, Euskadi nabarmentzen da bes-

8. TAULA. 2021ean EH finantzazten duten TTEE nagusiak (eurotan)

TTEE	Urtean jarritako/ aurreikusitako GLOa
Kanaria Handiko Kabildoa	1.225.000
Bartzelonako Udala	1.160.000
Bizkaiko Foru Aldundia	494.998
Gipuzkoako Foru Aldundia	359.973
Madrileko Udala	231.000
Arabako Foru Aldundia	179.686
Mallorcako Uharteko Kontseilua	171.278
Bilboko Udala	170.000
Iruñeko Udala	150.000
Valentziako Udala	149.510

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

te behin. EHra funts gehien zuzentzen duten 10 erakundetatik 4 euskaldunak dira, izan ere.

Euskal toki erakundeen artean, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzentzen du diru gehien sektore horretara, eta, gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak. Apur bat urrunago, Arabako Foru Aldundia eta Bilboko Udala ageri dira.

Euskal toki erakundeen EHren banaketa geografikoari dagokionez, Saharaz behealdeko Afrikak jasotzen du funts gehien (465.659 euro), Ekialde Hurbilak jarraitzen dio gero (421.890 euro) eta, urrunago, Hego Amerikak (144.301 euro), Afrika Iparraldeak (144.301 euro) eta Ipar Amerikak, Erdialdeko Amerikak eta Karibeak (110.000 euro). Banaketa geografiko horrek egoki erantzuten dio premia humanitarioei, Saharaz behealdeko Afrika baita krisi humanitario kopuru gehien duen eskualdea.

9. TAULA. 2021ean EH finantzatu duten euskal TTEEak (eurotan)

TTEE	2021eko EH GLOa
Bizkaiko Foru Aldundia	494.998
Gipuzkoako Foru Aldundia	359.973
Arabako Foru Aldundia	179.686
Bilboko Udala	170.000
Donostiako Udala	119.894
Errenteriako Udala	18.000
Zarauzko Udala	13.300
Legazpiko Udala	6.000

ITURRIA: EGILEAK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ITZULITAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

4. Konklusioak eta gomendioak

1. Garapenerako lankidetzak bideratzen du Euskadiko herritarren elkartasuna, politika publikoa denaz bezainbatean eta herrialde txiroen hazkunde ekonomikoa indartzen eta demokrazia, askatasunak eta ongizate estatua sendotzen duenez, eta Eusko Jaurlaritzak interes iraunkorra erakusten du horretan bere GLOa mantentzeko konpromisoarekin. Baina ulertu behar du osasuna funtsezko sektorea dela, ez bakarrik bere lurraldean, baita munduko pertsona eta herrien garapenerako ere. Planetak oraindik gainean duen bezalako pandemia bat nahikoa izan behar litzateke erakunde guztiek uler dezaten osasun arloko lankidetzaren alde egiteak duen garrantzia. **Eusko Jaurlaritzaren osasun lankidetzaren indartu egin behar da, bai zifra absolutuetan, bai lankidetzaren arloan duen garrantziari dagokionez,** azken urteotako emaile multzoaren batez bestekora hurbiltzeraino, bere GLOren %15eraino, alegia. Igoera horrek haren sektore-norabidea hobetzeko balio behar du, orekatuagoa izan behar baitu, eta baita haren orientazio geografikoa ere, Saharaz behealdeko Afrikak garrantzi handiago hartu behar duelarik.

2. Pandemia honek erakutsi digu osasunak zer harreman estu duen beste sektore batzuekin, adibidez, ekonomiarekin, ekologiarekin edo gizarte-babesarekin. Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) jardungo dute 2030era arte agintzen lehentasunak, bai toki zein nazio mailan, bai nazioarte mailan. Eusko Jaurlaritza urratsak ematen ari da horien ezarpenean, baina lankidetzarako partiden murrizketak “inor atzean ez uzteko” GIHren espirtuaren kontrako norabidean doazke. **Espero dugu Eusko Jaurlaritzak GKEak, gizarte-sektorea eta gizarte zibila kontuan hartzen jarraituko duela Euskadin 2030 Agendarekin aurrera egiteko.**

3. Osasun alorrean, “guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea” ezartzen duen GIHren 3. helburuan kokatuko dira datozen urteetan lehentasuneko izango diren ekintzak. Nazioarteko komunitateak erronka nagusi handi bat ezarri du mundu mailan: osasun estaldura unibertsala (OEU) lortzea. “Pertsona guztiek, zailtasun finantzarioen mende egon beharrik gabe, behar dituzten kalitateko funtsezko osasun-zerbitzuak jasotzea” nahi du, eta herrialdeak baliabide eta politika egokiak izatera behartzen ditu horrek. Euskadik bere **OEU partida handitzearen, bai osasun lankidetzarako bere proiektuetan,** osasun sistemarako sarbidea izango duten pertsona kopurua handitzearen, herritarren beharrei erantzungo dien aski zerbitzuak doitzearen eta norbanakoaren osasun gastuak (Espainian, %23) murriztearen erronkari helduta. Horretarako, **indartu egin behar ditugu osasun sistema publikoak, lehentasuna emanaz Lehen Mailako Osasun Arretako ekintzei eta osasuna ondasun publiko global gisa ulertuz, osasunaren determinatzaile sozialak zein komertzialak kontuan izanik, aldaketa klimatikoa barne.**

4. Behar humanitarioak konplexuago bihurtzen eta handitzen ari diren testuinguru batean, garrantzitsua da euskal lankidetzak buruan jarraitzea EHren konpromisoari dagokionez, gainerako autonomia erkidegoei bidea erakutsiz, bai bolumenean, bai horretara zuzentzen den portzentajearekin. Eta, EHrako bere Estrategiak dioen moduan, ekintza humanitarioari lotutako jarduerak finantzatu behar dira, epe luzerako begiradarekin eta denboran irauteko moduan.

OSASUNA MUNDUAN

COVID-19A



COVID-19ak lehenetasuna izaten jarraitzen du munduko osasunean. 2022ko urrira arte 580 milioi kasu eta zuzeneko 6,4 milioi heriotz baino gehiago jakinaraziak ziren. Eten egin du funtsezko osasun-zerbitzuen prestazioa eta osasun-adierazle batzuk atzera egin dute horren zioz.

BERRIA? MUNDUKO ITUN PANDEMIKOA



2024an beste itun pandemiko bat onartuko da. Teorian, etorkizuneko pandemiatik babestu behar gintuzte. Erantzuna ezin da izan soilik teknikoa: pandemia horien hedapena eragiten duten zio ekonomiko, sozial eta politikokoak aztertu behar dira.

OSASUNA 2030EAN, HORREN HURBIL, HORREN URRUN



2023an Osasun Estaldura Unibertsola lortuko zutela espero zen 1.000 milioi pertsonetik, soilik % 27ak lortu ahalko du. 2030erako aurreikusita diren osasun-helburuak ez dira betek. Ekitaterik eza eta munduko osasunaren aldeko ganorazko apusturik eza jarraitzen dute izaten arazo global handienak.

MUNDUKO OSASUNERAKO EKARPENA



Laguntza-emaileek, tartean Espainiak, osasuna lehenetsi izan dute euren lankidetzan, eta beren GLO osoaren %17,54raino heldu dira. Ikusteko dago datozen ureteetan ere interes horri eutsiko zaion.

OSASUNAREN DIGITALIZAZIOA



Osasunaren digitalizazioa aukera bat izan daiteke, baina baita eragozpen bat ere osasun-sarbiderako. Arrakala digitala -munduko biztanleriaren %45ari eragiten dio- edo baztertze egoeran den populazio batzuen ikusezintasuna ekitate ezaren faktore berriak izan daitezke.

ARTATU GABEKO LARRIALDIAK



Ukrainaz gain, badira beharrezko laguntzarik jasozten ez duten eta eragindako herritarrengan inpaktu bortitza duten beste hainbat krisi humanitario ere. Baina Nazio Batuek behar horiek estaltzeko nazioarteko komunitateari egindako ekarpena guztiaren %53 besterik ez zen izan.



**Medicus Mundiren Elkarteen
Federazioa Espainian**

Lanuza kalea, 9, lokala
28028 Madril

Tel.: 91 319 58 49 / 902 101 065
federacion@medicumundi.es
www.medicumundi.es



Munduko Medikak

Conde de Vilches kalea, 15
28028 Madril

Tel.: 91 543 60 33 / Fax: 91 542 79 23
comunicacion@medicosdelmundo.org
www.medicosdelmundo.org